HITZAURRE GISA

Jose Luis Alvarez Enparantza
«Txillardegi»

1998 urteari amaiera ematerakoan, edozein normalkuntza plangintzatan -eta areago gurean, arrazoi historikoengatik- gainditzen zail izaten den alor bat aztertuko dugu bereziki ale honetan.
Justizia Administrazioa izango dugu aztergai.
Xabier Iriondo legelariak, hasteko, Euskal Herriko Justiziaren Administrazioaren alorra aztertu du.
Funtsean, eta jakina denez, eta Baskongadetako lege-egoera kontuan hartuz gero, hiritarrok gaur egun eskubide pertsonalak ditugu. Alegia, eta teoriaren mailan bederen, hiritarrak hauta dezake zein hizkuntza erabili nahi duen Justiziarekiko bere harremanetan, eta honek eskabide horri erantzuteko gaitasuna izan behar du: inolako beharketa edo inposaketarik gabe.
Hots, arrazoin historiko ezagunengatik, eta Iriondok berak azpimarratzen duenez, Justiziaren mundua eta legeetako ofizialkidetasunaren mundua, bi mundu dira. Desberdinak oso, eta askotan elkarren aurkakoak ere bai.
Eta, ondorioz, kontraesanak oso garratz, eta Iriondok berak azpimarratzen duenez, Justiziaren mundua eta legeetako ofizialkidetasunaren mundua, bi mundu dira. Desberdinak oso, eta

askotan elkarren aurkakoak ere bai.

Eta, ondorioz, kontraesanak oso garratz ez agertzeko, piskanakako ideia ekarri da estalgarri. Helburua ez da zalantzatan jartzen, hitz batez; baina poliki joan beharra azpimarratzen da, aurrerapen mailakatua aipatzen da. Edo-ta, erdaraz, «progresividad» deritzona gogorazten da han eta hemen.

Presiorik gabe, hitz batez, testu horiek guztiz alferrikako gerta daitezke; «Abokatu Euskaldunek» beren praktikaren bidez argi-eta garbi erakutsi dutenaren bidetik.

Adibide argitsu batzuk aipatzen ditu Iriondok. Euskararen balorazioari dagokionez, esate baterako, onartua dago, legez (1991ko Urriaren 23ko Aginduaren bitartez) euskararen ezaguera ez dela merezimendu abstraktua bakarrik; 6 urte antzinatasunaren kidetza baitu. Legearen beraren mailan. Hots, puntu hau, beste asko bezala, «ez da indarrean sartu».

Horrelako jokabideak nagusi daudelarik, nola normal daiteke Justiziaren mundua?

Aldibereko itzulketaren soluzioa ez da bidea, Iriondok ondorioztarazten digunez. Gaitasun pasiborantza joan behar da. (Suitzako Parlamentu Federalean, esate baterako, aldibereko itzulpena soluzioa giandituz hartu den bidetik).

Euskara epaiketetan izeneko txostenak, bide beretik, joan denmaiatzean burututako mahai inguru baten berri ematen digu. Aiartza, Maeso, Otamendi, Erkizia eta Esnaola moderatzaileak esandakoak laburbiltzen saiatu gara.

Epaiketetan, eta oraingoz, garbi dago eradaraz jakin behar dela; euskararen beharrezkotasuna inodik inora agertzen ez delarik. Eta egoerak ez dauka aldatzeko batere itxurarik: Justiziaren langilegoa ez dago «transferitua». Eta ondorioz, aginte autonomikoak ez dauka alor horretan sartzeko modurik.

Epaileen artean, horretara, %7k besterik ez dakite euskaraz; eta Fiskalen arteko egoera, mahai inguruan agertu zenez, are okerragoa da.

Otamendik aipatutako pasadizu hitsak, horretara, gure hizkuntzarekiko arbuio osoaren lekukotasun bikain gertatzen dira. Eta Otamendik argi eta garbi salatzeko ausardia izan du.

Nola uler daiteke, esate baterako, suhitzaile plaza bat ateratzeko euskaraz jakin beharra; eta, batera, jueza izateko euskaraz jakin beharra ez kontutan hartzea? Beharrago du suhiltzaileak euskararen ezagutza bere lana burutzeko, juezak epaituekiko bere betebeharrak aurrera eramateko baino? Erantzun beharrik ez dago.

«Konparaziozko laidoa» ere ezarri behar da agirian kasu hauetan.

Kataluina aipaitzea, horretara, oso bidezkoa da. Zertan dira han?

Horretara dator Agustí Pouren lana. Han ere, egoera soziolinguistiko

hobea izan arren, %15 besterik ez dago katalandurik Justizia Administrazioaren alorrean. Gaitza, beraz, Estatuaren glotopolitikaren ondorioa da; eta Euskal Herrian bezala Kataluinan ere aztarnak utzi ditu.

Hemen bezalatsu, han ere helduen bgelaunaldi osoa, oro har, belarriz katalanez mintzatzen baldin badaki ere, askotan analfabetoa da; eta ez da gauza Admnistrazioaren munduan eta administrazio teknikoan katalanez mogitzeko.

Ezinezkoa da, hitz batez, alor horren normalkuntza linguistikoa; eta gaztelnia dago nagusi. Baita egongo ere.

Eskandalagarria da, adibidez, epaietan oraindik gaur Kataluinan %98,4 gaztelaniaz ematea.

Itzultzaileen mundu zail eta eskergabean bizi direnek badakite, eta ongi jakin beren eskarmentu pertsonalez -Joseba Erkiziak azaltzen digunez- lan nekeza dela askotan izkribu ofizial eta burokratiko horiek euskaraz txukun adieraztea.

Hots, hizkuntzazko trabez gain, eskerga da egitekoa; epaileak, fiskalak eta idazkariak, oro har, eta salbuespenak salbuespen, erdara hutsez bizi baitira beren mundu profesionalean. Eta, hitz batez, itzulpen-lan gaitza baitugu.

Bagenekien, jakin, gutxi gora behera gauzak zertan ziren. Baina «Abokatu Euskaldunak» lanean seriotan eta zehazki hasi arte, ez ginen egoeraz jabetzen.

Aiartzak oso egokiro gogoratzen duenez, 16 urte joan dira jadanik, eta Justizi Administrazioak oso itzultzaile gutxi dauka bere zerbitzutan.

Edonori datorkio gogora Martxelo Otamendiren ondorioa aintzakotzat hartu beharra: badirudi oraindik ez dagoela alor hori euskalduntzeko batere asmo zindorik, eta herri-presioa ezinbestekoa izango dugula luzaz.

Oso argigarria, bide beretik, Durangaldeko kasoa: 50.000 euskaldunek hiru epaile dituzte, baina... hirurak erdaldun hutsak!

Claudine Brohy suitzarraren artikulua oso interesgarria izan zitekeen. Baina ez du helburua lortu. Azalpena irakurgaitz gertatzen da askotan, eta zifrak berak ere zer diren ez dugu beti ulertzen.

Friburgoko kantoia, berriz (Brohy anderearen beraren kantoia!), oso interesgarria izaten da guretzat; Friburbgo-ko Unibertsitate franko-aleman elebiduna, esate baterako, adierazgarri izan dakigukeen neurrian. Badakigu Friburgoko kantoia, Bern, Valais edo Graubünden bezala, lurraldetasunez (geografikoki erabat) antolatua dagoela, mapak eta guzti. Baina honetaz argitzapenik ez zaigu eskaintzen.

Baina ez da gure betekizuna kritika xehe bat egitea. Eta , ohar hauek eginda, bego horretan, eta irkaurleak berak ikus beza.

Joxe Miguel Azurmendi euskalari zorrotzaren lana, kasu honetan, ez

da oso soziolinguistikoa beharbada. Egia da presoen jazarpena, hizkuntzaren alorrean, mingarria eta nabarmena dela; eta Azurmendi preso-ohiak ongi dakiela zertaz ari den.
Eta lekukotasun latza denez, bere horretan eman dugu argitara.
Joxe Manuel Odriozola lankideak, azkenik, bere liburu-aurkezpen lerroaren bidetik, Maitena Etxebarriairakaslearen «El bilingüismo en el Estado español» liburuaren berri zehatza ematen digu. Liburu mardula eta mamitsua.
Funtsezko asimetriak azpimarratu beharra gogorazten digu Odriozolak; eta gizarte sistema osoa aldatu gabe, hizkuntzaren alorrean aldakuntza osorik itxaroterik ez dagoela dinosku.
«Guk nahi duguna izango da geroa», omen. Faltsua, Odriozolak azaltzen duenez. «Mendeko hizkuntza-komunitatea bere eskuko ez baldin bada, nola arraio egongo da bere esku bere hizkuntzaren nondik norakoa?
Garraxko esana. Baina zuzen ikusia.